TOLOSAKO UDALA

2023IGBA0006

# GOBERNU BATZARRA

**2023.03.21**

**Alkatea:**
**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**
**Begoña Tolosa Mendia**
**Xarles Iturbe Pasaban**
**Xabier Balerdi Tolosa**
**Jose M. Villanueva Telleria**

**Ez bertaratutako zinegotzia:**
**Patxi Amantegi Zubiria**

**Idazkaria:**
**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzaile akzidentala:**
**Paulino Alonso Eraso**

**Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren hogeita batean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko:**

1. **Akta hau onartzea: 2023ko martxoaren 14koa.**
2. **Ebaztea etxe abereen ordenantzaren arau-hausteagatiko zehapen espedientea. (M.G.T).**
3. **M.A.R. udal langileak Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko abenduaren 1eko erabakiari aurkeztu dion administrazioarekiko auzien errekurtsoan pertsonatzea, non onesten baitira enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak eta Administrazio Bereziko Eskalaren Azpieskala Teknikoari (A2 azpitaldea) dagozkion oinarri espezifikoak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorriak.**

**4.. Dekretu hauen berri ematea:**

**2023/578 Dekretua: 2022/74 faktura zerrenda.**

**2023/579 Dekretua: 2022/75 faktura zerrenda.**

ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1

**2023/625 Dekretua: 2023/2 faktura zerrenda.**

1. **AKTA HAU ONARTZEA: 2023KO MARTXOAREN 14KOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. **EBAZTEA ETXE ABEREEN ORDENANTZAREN ARAU-HAUSTEAGATIKO ZEHAPEN ESPEDIENTEA. (M.G.T).**

I) AURREKARIAK

Iazko urriaren 07an NAN Zbkia XXXX748Q duen MGT-k, kaltea egin dezaketen animalia zaindu eta gordetzeko behar hainbateko arreta izan beharreko betekizuna ez zuen bete.

Udaletxe honetan, 2757/2022 zkia duen Alkate Dekretuz etxe abereen ordenantzaren 9.2.g artikuluaren ustezko arau-hausteagatik zigor espedientea ireki zitzaion MGT-ri.

Instrukzio egileak egindako ebazpen proposamena BOEn argitaratu zen 2023 ko urtarrilaren 27an ebazpen proposamenta interesatuari jakinarazaten saiatu ondoren. Honelaxe zioen:

- MGT-k ondorengo arau-hauste **larria** egin duela deklaratzea: etxe abereen Ordenantzaren 9.2.g artikulua ez betetzeagatik.

- 300,52 €uroko isuna jartzea.

I) ANTECEDENTES

El día 07 de octubre de 2022, MGT, con DNI XXXX748Q incumplió con la obligación de mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daño.

En fecha 07 de octubre de 2022, mediante Decreto de Alcaldía 2022/2757 se incoó expediente sancionador a MGT. por presunta infracción del artículo 9.2.g de la Ordenanza Municipal sobre animales domésticos.

Despues de varios intentos de notificación fallida, con fecha 27 de enero de 2023 se publicó en el BOE la notificación en la que se cumunica al interesado la propuesta de resolución, cuyo contenido era el siguiente.

-Declarar cometida por MGT la infracción **grave** tipificada en el artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos.

-Imponerle la multa de 300,52 €uros.

ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1

Proposamen horretan, interesatuari hamar eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkeztu ahal izateko.

En dicha propuesta, se otorgó al interesado un plazo de diez días, a fin de que formulara las alegaciones que estimara convenientes.

MGT-k ez zuen alegaziorik aurkezu.

MGT no presentó ninguna alegación.

Hori guztia kontuan izanik etaUdaleko Antolakuntzako zinegotzi delegatuak, egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo ello, la Junta de Gobierno, a propuesta del concejal delegado de Organización, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

**LEHENA.-** Frogatutzat jotzea 2022ko azaroaren 18ko datarekin 2757/2022 Dekretuan egotzitako ekintzak.

**PRIMERO.-** Dar por probados los hechos imputados en el Decreto nº 2757/2022 de fecha de 18 de noviembre de 2022.

**BIGARRENA.-** MGT-k ondorengo arau-hausteak egin dituela deklaratzea: kalterik egin dezaken animalia zaindu eta gordetzeko behar hainbateko arreta izan beharreko betekizuna ez zuen bete. (Etxe abereen udal Ordenantzaren 9.2.g artikuluaren arabera). Aipatutako arau-haustea larria da.

**SEGUNDO.-** Declarar cometida por MGT las infracciónes consistentes en incumplir con la obligación de mantener la debida diligencia en la custodia y guarda de animales que puedan causar daño (en base al artículo 9.2.g de la Ordenanza municipal sobre animales domésticos), considerándola infracción grave.

**HIRUGARRENA.-** 300,52 €uroko isuna jartzea MGT-ri.

**TERCERO.-** Imponer a MGT una multa de 300,52 €uros.

**LAUGARRENA.-** Isuna ordaintzeko epea hilabetean finkatzea. Epe hau ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuko da. Ordainketa kontu honetan egingo da: 2095 5067 10 1060024816.

**CUARTO.-** Establecer como plazo para el pago de dicha multa el de un mes, contado desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la presente resolución. El pago se realizará en el número de cuenta 2095 5067 10 1060024816.

**BOSGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Hiritarren Segurtasun eta Udaltzaingoko Sailari eta Kontuhartzailetzari.

**QUINTO.-** Dar cuenta del presente acuerdo al Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal y a Intervención.

ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1

3. **M.A.R. UDAL LANGILEAK TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN 2022KO ABENDUAREN 1EKO ERABAKIARI AURKEZTU DION ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ERREKURTSOAN PERTSONATZEA, NON ONESTEN BAITIRA ENPLEGUA FINKATZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUEN OINARRI OROKORRAK ETA ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALAREN AZPIESKALA TEKNIKOARI (A2 AZPITALDEA) DAGOZKION OINARRI ESPEZIFIKOAK, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN 6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRIAK.**

M.J.A.R.-ek Donostiako Administrazioarekiko 2 zenbakidun epaitegian, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri du honako erabaki honen aurka: Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko abenduaren 1eko erabakia, non onesten diren enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuen oinarri orokorrak eta Administrazio Bereziko Eskalaren Azpieskala Teknikoari (A2 azpitaldea) dagozkion oinarri espezifikoak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorriak.

Honela, uztailaren 13ko 28/1998 Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea jarraituz, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**E R A B A K I   D U**

**LEHENA.-** Tolosako udala 101/2023 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan alderdi demandatu gisa agertzea.

**BIGARRENA**.- Espediente administratiboa Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegira bidaltzea 20 laneguneko epean, Epaitegiko ofizioa eta erantsitako dokumentazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki hau prozeduran interesdun gisa agertzen diren guztiei jakinaraztea eta bederatzi eguneko epea ematea, errekurtso honetan demandatu gisa pertsonatzeko aukera emanaz.

**LAUGARRENA**.- Tolosako Udala ordezkatu eta defendatzeko honako abokatuak izendatzea: Javier Hernaez Manrique eta Leire Lertxundi Beristain.

**BOSGARRENA**.- Enplamazamenduari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1

**4.. <u>DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA</u>:**

**<u>2023/578 DEKRETUA: 2022/74 FAKTURA ZERRENDA</u>.**

Idazkariak 2023/578 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

*2023KFAK0001*

***ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA***

***BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,*** *Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:*

*74. zenbaki duena, 130.132,26 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau*

***EBAZTEN DU:***

***LEHENA.-*** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*74. zenbaki duena, 130.132,26 eurokoa.*

***BIGARRENA.-*** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Zinegotzi delegatua*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Nire aurrean,*
*idazkari akzidentala*

*Begoña Garmendia Vázquez*

ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2023/579 DEKRETUA: 2022/75 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2023/579 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

*2023KFAK0001*

***ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA***

***BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,*** *Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2022ko honako faktura-zerrenda hau:*

*75. zenbaki duena, 6.500eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau*

***EBAZTEN DU:***

***LEHENA.-*** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*75. zenbaki duena, 6.500eurokoa.*

ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1

2023IGBA0006

***BIGARRENA.-*** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

| | |
|---|---|
| | *Nire aurrean,* |
| *Zinegotzi delegatua* | *idazkari akzidentala* |
| *Begoña Tolosa Mendia* | *Begoña Garmendia Vázquez* |

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**2023/625 DEKRETUA: 2023/2 FAKTURA ZERRENDA.**

Idazkariak 2023/625 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

*2023KFAK0002*

***ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA***

***BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,*** *Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:*

*2. zenbaki duena, 238.763,46 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau*

ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1

***EBAZTEN DU:***

***LEHENA.-*** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*2. zenbaki duena, 238.763,46 eurokoa.*

***BIGARRENA.-*** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

| | |
|---|---|
| | *Nire aurrean,* |
| *Zinegotzi delegatua* | *idazkaria* |
| *Begoña Tolosa Mendia* | *Begoña Garmendia Vázquez* |

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 11:55ean.**

| | |
|---|---|
| **ALKATEA** | **IDAZKARIA** |



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUe1198bb9-b5c3-4c28-a3d3-953f2888eda1**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2023IGBA0007-2023-03-21 Gobernu batzarra akta/2023-03-21 Gobernu |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ - 15924469M
Data / Fecha: 2023/03/30 13:17:03

Sinatzailea 2 / Firmante 2: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)
Data / Fecha: 2023/03/31 13:34:13